

Txosnetan dena prest Pantxikeri harrera egiteko

Durangoko txosnaguneak jaietako egitaraua aurkeztu du. Aurten, euskalgintzako eragileek botako dute txupinazoa. Eskaintza musikala oso zabala izango da / 5



Doniel Atxa jaso eta gero, dantzariak saioa egingo dute.

Iurretarek jai giroz beteriko egunak dituzte aurretik, sanmigelen eskutik / 10



Durangon trikiti irakaslea den Azkune etxebarritarak 'Geuretik' diskoa kaleratu du / 22



Ibon Pujana: "Tor des Geants proba abentura bat izan da niretzat, lasterketa bat baino gehiago" / 26

ERALDAKETA KOLEKTIBO BATERAKO OINARRI ETA INURRI

Izan Inurri elkarteak babes sareak, laguntza eta dibulgazioa eskaintzen die minbizia zuzenean edo zeharka jasaten duten herritarrei. Minbiziaren errelatoa ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik lantzeraz deitu dute / 2-3



Izan Inurri elkarteko kideak.



Izan Inurrik sexualitatea eta zoru pelbikoa lantzeko antolaturiko tailer bat. IRATXE ETXEANDIA

Minbiziaren errelatoa eraldatzeko inurri lana

Izan Inurri elkarteak bost urte daramatza minbizia zuzenean edo zeharka jasaten duten herritarrei laguntza, babesa eta dibulgazioa ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik ematen. Eguenean Isiotu Kultur Elkartean eman zuten berbaldia

Ekaitz Herrera MINBIZIA

"Badirudi gizarteak bizkarra eman nahi diola sufrimendua darion guztiari, ezkorra den guztiari. Baina uste dut minbiziari aurrez aurre begiratzeko ikasi behar dugula, hori ere bizitzaren zati delako", dio Olatz Mercader zarauztarrak. Mercader Izan Inurri elkartearen kideetarikoa da, "inurrietariko bat". Eta eguenean Abadiñon egon zen, beste hainbat kidegaz batera, gaixotasunak inposaturiko isiltasuna eta tabua apurtzen.

Izan ere, elkartearen kideen iriziz behar-beharrezkoa da minbiziaren gaian eraikitzaile dagoen errelatoa aldatzea: "Minbiziarekiko begirada berri eta disruptibo bat behar dugu, osasun sistema askoz ere hobeto konpontzen delako gaixotutako zelulekin, pazienteekin baino. Hau da, sistema oso abila da gure minbizidun zelulak tratatzen; ondo erretzen ditu, ondo pozotzen ditu, ondo mozten ditu. Baina sistema ez da jabetzen

zelula horiek pertsona batengan bizi direla", azaldu du. Eta elkarteak hori ipini gura du fokua, hain zuzen ere: "Minbiziaren gaur egungo ikuspegi mekanizista" aldatzean. Nondik hasi? "Dimentsioak ugari dira", Mercaderren esanetan, eta hari mataza erraldoia askatzeko muturrerarikoa bat tratamenduen ostekoari erreparatzea izan daiteke. "Tratamenduak oso albo-kalte gogorrak ditu eta ez zaizu inolako baliabiderik eskaintzen horri guztiari aurre egiteko. Ez da bitartekorik ipintzen honelakoak lantzeko: tratamenduaren albo-kaltei hobeto eusteko elikadura, fisioterapia, ariketa fisikoa, osasun mentala edo sexualitatea. Aipaturiko horiek guztiak osasun sistemari integratzen eta doan eskaini daitezkeen aldarrikatzen dugu. Izan ere, gu guztiok suntsituta geratzen gara eta zerotik berre-raiki behar izaten dugu dena", gaineratu du Mercaderrek. Prozesuagaz apurtuta geratu den

beste inurrietariko bat Yolán Ibarloza ondarroarra izan da. Ibarlozari iazko ekainean heldu zitzaion "tsunamia", sendagileak diagnostikoa komunikatu zionean. Bularreko minbizia bigarren fasean sartuta zeukan. "Diagnostikoak lur jota utzi ninduen. Ez nuen indarrik ez jabetzarik ahoz eta ozen minbizi nuela esateko. Kontsultarik kontsulta eta probarik proba aurrera zoaz, baina nora zoazen ondo jakin barik", adierazi du Ibarlozak. Eta, halako batean, nebak eta beste ezagun batek gomendatuta, Izan Inurriren podcastak entzuten hasi zen. "Euretariko batek honako izenburu hau dauka: *Ez zintudan espero*. Eta guztiz engantxatuta

**"EZ GARA
DIAGNOSTIKOAGAZ
BATERA HILTZEN;
HILTZEN GAREN ARTE
BIZI GARA"**

geratu nintzen, oso-oso identifikatuta sentitu nintzen. Neure buruari esaten nion: ez naiz bakarra! Hemen agertzen direnek ulertu egiten naute! Babesa sentitu nuen", azaldu du Ibarlozak. Eta orain pozik dio: "inurria naiz".

Podcastek ahalbidetutako babesagaz gainera, Ibarlozak garrantzia eman dio elkarteak antolatzen duen jardunaldi, tailer, egonaldi eta erretiro baikoitzari. "Halako saioetan, baikoitzak bere prozesuari buruz berba egiten du, norbere bizi-penak partekatzen dira, doluari zein sexualitateari buruz berba egiten duzu zu bezalakoekin", azaldu du. Eta podcasten bitartez lorturiko ulermenari beste zerbait gehitu zion orduan: "babesa". "Guztiz babestua sentitu izan naiz halako jardunaldietan. Gainera, espazioa partekatzen duzunez, hartu-emanak egiten dituzu, aisialdirako tarte bat hartzen duzu. Beste horren kezka, interesak, beldurrak, partekatzen dituzu. Eta, orduan, zure moduko hainbeste jende ikusita, babes hori beste fase batera igarotzen da. Ahaldundu egiten zaitu", gaineratu du.

Ahalduntze horren beste atletariko bat *Tabuen kutxatik oholtzara* bertso saio musikatueta bizi izan du Ibarlozak: "Bertso saioen amaieran, elkartearen kide batzuk oholtzara gainera igo izan gara. Eta hor mezu bat plazaratzen dugu: ez gara bakarrak, hemen gaude, bizi gura dugu, hil arte bizi gura dugu, eta bizi gura dugu hainbeste negarrik egin barik eta hainbeste medikaziorik hartu barik. Horrek guzti horrek aurrera jarraitzeko eta bizitzeko indarra eman dit. Bestela, badirudi gaian kondena bat duzula ezarrita". Alde horretatik, Yolán Ibarlozak bere egiten du laster Izan Inurriren kaleratutako dokumentalaren izenburua: *Hil arte bizi*. "Minbiziaren heriotzagaz lotzen dugu. Zoritxarrez, gauzak, izan, horrela dira. Baina iruditzen zait bizitza tarte horri eman beharreko garrantzia galdu egin dugula. Hau da, ez gara diagnostikoa jasotzeagaz batera hiltzen. Ez. Hiltzen garen arte bizi gara. Horregaitik da inportantea Izan Inurriren egiten duen lana, ikuskera aldatzeko, heriotzean bizitza dagoela eta bizitzan heriotza dagoela ulertzeko", azaldu du Ibarlozak.

Izan Inurri, datuetan eta zenbakitan

Izan Inurri minbiziaren normalizatzeko lan egiten du, tabue-tatik aske eta ikuspegi feminista gatzaz.

Dohaintzak ikerketara

- Elkarteak, orain arte, 9.500 euro baino gehiago erabili ditu bularreko minbizi metastasikoa, sarkoma, leuzemia eta umeen minbiziaren ikertzeko.

Emakumeak ardatz

- Izan Inurri sareak 186 emakumeri baino gehiago eskaini die laguntza era zuzenean.
- Horietatik %89k elkarteak antolaturiko ekintzetan parte hartzen dute. Horri eskerrak, laguntza hurbila eta etengabea eskaintzen diote elkarri, elkarlanean. Esku hartu duten emakumeen %82k 50 urte baino gutxiago ditu.

Kultura eta dibulgazioa

- Elkarteak antolatu dituen askotariko ekintza kultural eta dibulgatiboetan 4.500 ikusle baino gehiagok parte hartu dute. Minbiziaren 25 emakume igo dira eszenatoki gainera ekitaldietan. 2022an, adibidez, 25 ekintza baino gehiago antolatu zituzten.

Sare sozialak

- Izan Inurri 11.800 jarraitzaile baino gehiago ditu Instagramen, eta 1.300dik gora Facebooken. Jarraitzaileen %88 emakumeak dira. Youtuben podcastak dituzte. Euskaraz entzun eta ikusi daitezke guztiak.

Facebook: [Iñurri](#)

Instagram: [izaninurri](#)

izan.inurri@gmail.com

(+34) 613448268

Izan Inurri, iruditan



Elektropottotte elektrotxararangak Iñurri Egunean jo zuen. IRATXE ETXEANDIA

Iñurri Eguna. Izan Inurrik orain bost urte hasi zuen bere ibilbidea, eta aurten ospatu du bere lehenengo Iñurri Eguna. Irailaren 7an egin zuten, Usurbilen (Gipuzkoa).



Sandra Barkaiztegi inurria 'Tabuen kutxatik oholtzara' saioan. I.E.

Tabuen kutxatik oholtzara. Izan Inurrik *Tabuen kutxatik oholtzara* izeneko bertso saio musikatu eta solidarioa antolatzen du. Bertso saioagaz, gaixotasunak inposatzen duen isiltasuna apurtzen dute, minbiziari plazaren erdigunea eta ahotsa eskainita.




Elkartearen podcast saio bat. IZAN INURRI

Podcastak. Izan Inurriko kideak podcastak aieratzen hasi ziren orain urtebete. Saio guztiak Youtuben daude ikusgai eta entzungai. Minbiziagazko begirada, bidelagunei buruzko hausnarketak, metastasia eta sexualitatea dira landu dituzten gaietariko batzuk.

"Enpresek minbiziaren irudia edulkoratzen dute"

Urriaren 19a ate joka dago, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna. Eta, horregaz batera, *Urri arrosa*. Baina Izan Inurriko kideek zorrotz eta kritiko begiratzen diote efemeride horri. Diotenez, enpresek etekina lortzeko baliatzen dituzte datok

Ekaitz Herrera ZURIKETA ARROSA
Olatz Mercader Izan Inurriko kideak argi eta garbi dio. Urriaren 19a ailegaten den aldiro, nazioartean Bularreko Minbiziaren Eguna gogoratzen den aldiro, "ikaragarritzko amorrua" sentitzen du supermerkatuetako apalak ikusita. Egun horren bueltan, emakumeei zuzentzen zaizkien higie eta kosmetika produktuak arrosa kolorez bilduta eta jantzita egoten direla dio. Enpresek bularreko minbiziaren kontrako konpromiso bat gizarteratu gura dute, baina, Mercaderren esanetan, kontua oso bestelakoa da. "Onartu beharra daukat minbiziaren dudak arte tranpa guztietan erori naizela: ur botila arrosak erosten nituen, ilea orrazteko plantxa bat erosi nuen, arrosa kolorekoa hau ere, eta dena erosketa horren dohaintza zati bat minbiziaren ikerketarako zela pentsatuta. Baina gaixo nagoenetik ikaragarritzko amo-



Olatz Mercader. TTAP

rrua sentitzen dut horren guztiaren atzean ezkututzen dena jakinda. Enpresek minbiziaren oso irudi edulkoratua ematen dute. Gaixotasuna era izugarrian infantilizatzen dute. Eta, gainera, ez dute inolako garden-

tasunik ematen dohaintza horiek nora bideratzen dituzten argitzeko. Ausoniak, adibidez, honako hau dio: erositako konpresa pakete bakoitzagaitik minutu bateko psikoterapia saioa oparituko diogu bularreko minbiziaren duen bati. Iraingarria deritzogu", azaldu du.

Sufrimenduari etekin ekonomikoa ateratzeko asmo bat ikusten du Mercaderrek horren guztiaren atzean: "Produktu kosmetiko asko minbiziaren eragiten duten substantziekin osatuta dago, baina, aldi berean, produktu horiek saltzen dizkigute diruaren zati bat minbiziaren kontrako ikerketara bideratuko dutela esanda". Horren aurrean, prebentzioari begirako "hausnarketa serio bat" bultzatzera deitu du. "Ederra litzateke haien produktuetatik gaituzten gaituzten elementu guztiak kenduko balituzte", gaineratu du Izan Inurriko kideak.

'Hil arte bizi' dokumentalari laguntzeko kanpaina, martxan

Ikus-entzunezkoan hainbat emakumeren istorioa jasoko dute, ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik



Dokumentaleko fotograma bat. IRATXE ETXEANDIA

Ekaitz Herrera IKUS-ENTZUNEZKOA
Izan Inurri film dokumental bat ekoizten dabil, minbiziagaz bizi diren hainbat euskal emakumeren bizipenak ikuspuntu feminista, kolektibo eta eraldatzaile batetik kontatzeko. Filma sei ataletan egongo da banatuta, eta emakumeek urte bian bizitakoak kontatuko dituzte bertan. Orain, kanpaina bat ipini dute martxan dokumentalari diruz laguntza emateko. Informazio guztia goteo.org atarian topatu daiteke. Bertan daude ikusgai dokumentalaren teaserra, fotogramak, ikus-entzunezkoari laguntza emateko arrazoak eta Izan Inurri egiten duen lanaren deskribapena. Era berean, ekarpen ekonomikoak egiteko bideak ere bertan kontsultatu daitezke. Dohaintzak 10, 25, 50, 75, 100, 250 edo 500 eurokoak izan daitezke.

"Gazteek aske berba egin ahal izango dute sexuaz"

Durangoko Udalak zerbitzu berri bat estreinatu du asteon: gazteei zuzenduriko sexu aholkularitza zerbitzua. Zerbitzua martitzeneko-martitzeneko eskainiko dute, Gaztegunean. Bestalde, Instagram eta Whatsapp bidez ere emango dute arreta

Ekaitz Herrera DURANGO

Zerbitzu berria Intxaurreondoko Oktogonoan eskainiko dute, Gaztegunean. Martitzenetan izango da, 16:00etatik 17:00etara. Whatsapp zenbakia 644 898 661 da, eta Instagram kontua @sexorienta. ANBOTO Jesica Ruiz Herrigintza zinegotziagaz eta sexu aholkularitza zerbitzua emateaz arduratuko den Irati Martin atxondarragaz batu da. Martin gizarte hezitzailea eta sexologia da.

Zer eskainiko du zerbitzu berri honek?

Jesica Ruiz: Sexualitateari buruzko aholkularitza zerbitzua izango da, eta era presentzian zein Whatsapp edo Instagram bidez eskainiko da. Gazteei zuzenduriko zerbitzua da gehienbat, sexualitateari buruz normaltasunez eta askatasunez berba egiteko aukera emango duena. Gazteek haien kezka eta arazoak kontsultatzeko espazio aske bat izango dute hemen.



Jesica Ruiz eta Irati Martin, zerbitzua eskainiko den Oktogonoaren aurrean.

Irati Martin: Aholkularitza zerbitzuaren oinarria etortzen denaren egoera aztertzea da. Baina ez gara azterketa psikologiko batez ari. Ekartzen dutenaren arabera, zer egin dezakegun aztertuko dugu. Zalantza

bategaz etorri daitezke, edo kezka bategaz, eta ekarri ditza keten oztopoei buelta ematen laguntzen ahaleginduko gara.

Zein adin tarteri zuzenduriko arreta izango da?

J.R.: Hamalau urtetik gorakoei

eskainiko zaie arreta, baina, berez, ez dago mugarik, ez goitik ez behetik. Izan ere, gertatu daiteke gazteren baten gurasoa kezka bategaz etortzea hona. Hau da, gazteek izan dezakete arazoren bat, eta gurasoek behar bada ez dakite hori zelan kudeatu.

I.M.: Guzu psikologia eta sexologia zentroan antzera bateko zerbitzuak eskaintzen ditugu beste hainbat herritan. Normalean, familiak, nerabeak eta helduak etortzen dira. 12-14 urtetik 16-18 urtera arteko gazteak etortzea da ohikoena. Edozelan ere, hau edozeinentzat dago zabalik. Helburua kezka partekatze espazio seguru bat sortzea da.

Zeintzuk dira gazteek izaten dituzten kezka nagusiak?

I.M.: Denerik dago. Gainera, adinaren arabera eta bakoitzak bizi duen momentuaren arabera, kezka askotarikoak izan daitezke. Nerabeak identitateari loturiko kezkekin etortzen dira. Beste batzuetan, hartu-emanaren barruan identifikatzea kostatzen zaien deserosotasunen bat dela-eta etortzen dira. Hemen kezka horien arazoak ulertzen edo identifikatzen laguntzen dugu, buelta ematen laguntzeko. Helduak, ostera, hartu-emanetako egoerak kudeatzeko aholku bila etortzen dira. Egoeratariko batzuk hartu-eman barruko desirak aldatzeagaz lotuta daude, eta elkarbizitzari loturiko kezka

eta iritzi desberdintasunak ere badira. Hartu-emanak zelan ikusten diren, eta horiek desberdin ikusten badira zelan kudeatu... askotariko zalantzak egon daitezke. Nerabeen kasuan, sexuaren bitartez transmititzen diren gaixotasunei loturiko kezka daude. Babes neurriei buruzko galdera asko izaten dute. **Izan ere, zerbitzuaren beste helburu bat hartu-eman osasungarriak bultzatzea da.**

J.R.: Datuak ikusita, sexuaren bitartez txanstitzen diren gaixotasunek gora egin dute. Horiek prebenitza eta horiei buruz berba egitea ere bada zerbitzuaren helburua.

Aurrez aurreko arretaz gainera, Whatsapp zenbakia eta Instagram ipini duzue eskuragarri. Kontsulta anonimoki egiteak zelan laguntzen du?

I.M.: Oso lagungarria da. Gazteei gatx egiten zaie arrotza den espazio batera joatea, batez ere bertan nor topatuko duten ez badakite. Whatsapp zenbakiak eta Instagram kontuak anonimotasuna eskaintzen dutenez, babes hori sentitzen dute.

"IDENTITATEARI, HARTU-EMANEI ETA GAIXOTASUNEI BURUZKO KEZKAK DIRA OHIKOENAK"

'Otxandio zabaltzen' izeneko aplikazioa ipini dute martxan

A. Basauri OTXANDIO

Otxandioko Udalak Otxandio Zabaltzen aplikazio berria ipini du martxan. Herritarren eta udalaren arteko hartu-emanak sendotzea izango da app horren helburu nagusia, udal ardura-dunek jakinarazi dutenez.

Tresna digital berriak hainbat atal ditu erabilgarri. Horien artean, Kalezaindu izeneko. Horrek, udalari apurketen edo konpondu beharrekoen berri emateko erabili izan den Hor Konpon app-a ordezkatzeko du. Sorturiko aplikazio berriak 'Agenda', 'abistek' eta 'abisuak' atalak ere batzen ditu, udal ordezkariak azaldu dutenez.

Izen berriak Durangoko eta Iurretako kaleetan

Ekaitz Herrera DURANGO / IURRETA

Durangon eta Iurretan sortu diren azpiegitura berriei izena ipintzeko prozesua amaierara ailegatu da. Horrenbestez, herritarrek halantxik erabakita, udalerrri bietako kale izendegian izen berriak agertuko dira. Honako hauek: Atxutxietako Zubia (Ibaizabal gaineko pasabidea, Iurretaren eta Durangoren lotunea), Zesteruena kalea (Santasanoste eta Komentukale artean kokatuko den kale berria) eta Independentzia Plaza (Zirarmendieta, Bernardo Gabiola eta Faustebidea kaleen artean osatu den plaza). Udal biek laster egingo dituzte izenak ofizial.

Leku izenak erabakitze bozketako emaitzak



ATXUTXIETAKO ZUBIA
DURANGO / IURRETA

Ibaizabal gaineko pasabide berriak jatorrizko toponimoari eutsiko dio: *Atxutxietako Zubia* izango da. Izan ere, zubi zaharrak, kalean *Deabruaren Zubia* modura ezagutzen zenak, *Atxutxietako Zubia* zuen berezko izen. Iurretarek eta durangarrek jatorrizko izena mantentzea erabaki dute.



ZESTERUENA KALEA
DURANGO

Komentukalea eta Santasanoste batuko dituen kale berriak *Zesteruena* izena izango du, inguruan duela gutxira arte zutik egondako baserriaren omenez. Proposamenen artean, aukera horrek izan du durangarren babesik handiena. 216 lagunek egin dute Zesteruena alde.



INDEPENDENTZIA PLAZA
DURANGO

Zirarmendieta, Bernardo Gabiola eta Faustebidea kaleen arteko plaza berria *Independentzia Plaza* izango da. 204 botogaz, aukera horrek izan du herritarren babesik handiena. Atzetik geratu dira hurrengo aukera biak: Vicente Zavalala Plaza (190 boto) eta Esnatuberri Plaza (38 boto).

Pantxikeren babesean dantzatzeko gogoz

Durangoko txosnaguneak jaietako egitaraua aurkeztu du. Aurten, euskalgintzako eragileek botako dute txapligua: Ibaizabal ikastolak, AEK-k, Berbarok eta Euskal Herrian Euskarazek. Mozorro egunean sari banaketa egingo dute, lehenengoz

Ekaitz Herrera DURANGO

Pantxike etortzea baino ez da falta, Durangoko txosnek dena gertu daukate-eta herriko jaiak ospatzeko. Aurten ere Landako Gunearen eta Plateruena Kultur Aterpearen arteko eremuan egongo dira txosnak. Bertan kokatuko dituzte tabernak eta sukalde-jantokiak. Eta, zelan ez, bertan egingo dituzte egitarauko ekin-tzarik gehienak. Tartean, eskaintza musikala, zabala eta anitza, etxeko eszena hauspotzen duena zein Euskal Herrian boladan dauden talde sonatuak taularatu dituen. Hona hemen zerrenda labur bat: Ainke, Malakias, Katu, La Txama, Belako, Txopet,



Durangoko txosnagunea osatzen duten eragileak, martitzeneko agerraldian.

Goxua'n Salsa eta Gozzue. Talde horien guztien eta gehiagoren emanaldiak entzungo dira bozgorailuetako dezibelio bakoitzean. Txapliguari dagokionez, euskalgintzako eragileak izango dira aurtengo protagonistak: Ibaizabal ikastola, Berbaro, Euskal Herrian Euskaraz eta AEK. Izan ere, badira efemerideak. Ibaizabal ikastola 25. urteurrenean murgilduta dago; Berbaro 35.ean, eta Euskal Herrian Euskarazek 45 bete ditu. Horri guzti horri gehitu diote AEKren Abarrak euskaltegiak hainbeste urtean egindako lana. Txosnek "Durango euskaldun baten alde egindako lana aitortu eta goraiatu" gura diete guztiei. Txupinazoa urriaren 11n izango da, Pantxikeren etorrera amaitu eta gero, 21:00etan. Bestalde, erasoen kontrako protokoloa martxan egongo dela gogoratu dute: "Txosnagunea denontzako espazio segurua izatea gura dugu, eta, horretarako, protokolo bat martxan izango dela adierazi gura dugu. Inolaz ere ez dira jarrera eta eraso arrazista, sexista eta LGTBI+fobikorik onartuko, eta horien aurrean erantzungo dugu", iragarri dute.

Ixte ordutegia berandutzea eskatu dute

Txosna batzordea udalagaz hartu-emanetan ipini da txosnen ordutegia aldatzeko. Iaz 04:30ean zarratu zituzten, udalak halantxik aginduta. Baina aurten ordutegi hori berandutzea eskatu diote. Eragileen iritziz, txosnek "gune eroso bat" eskaintzen dute eta "ekarpen esanguratsua" egiten diote herriari. Hori dela eta, "zentsugabetzat" jo dute "ordutegia murriztea". "Izan ere, ordu horretatik aurrera herritarrei eskaintzen zaien eskaintza oso murriztua izaten da eta bertan sortzen den giroa gehienetan ez da eroso izaten", argudiatu dute. Gaineratu dutenez, udalak oraindik ez die ordutegia berandutzeagaitiko erantzunik eman.

Zaldibarko liburutegi zaharra egokitzen hasi dira

Soinua, argiztapena, isolamendua eta altzariak hobetuko dituzte, egungo beharrianak asetzeko

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udala liburutegi zaharra berritzen hasi da, eremua gaur egungo beharrianetara egokitzeko. Hau da, bertan antolatzen diren berbaldi, proiektio eta tailerrei begirako egoki-

tzapen lanak egiten hasi dira, eremuaren ezaugarri teknikoak hobetuta. Batetik, lokaleko akustika eta argiztapena hobetuko dituzte, eta ikus-entzunezkoak proiektatzeko aukera eskainiko duen azpiegitura instalatuko

dute. Bestalde, isolamendu termikoa hobetu, klimatizazio sistema ipini eta altzariak berriztuko dituzte. Azken hauek guztiz berriztuko dituzte, eremuari homogeneousatasun bat eskaintzeko. Horrez gainera, sarrerako eta komunerako irisgarritasuna hobetuko dute.

Obraren inbertsioa 94.190 eurokoa da. Kopuru horretako 62.038 euro Bizkaiko Foru Aldundiak ipiniko ditu. Aurreikuspenen arabera, lanek hile bi iraungo dute.



Liburutegi zaharra obrak hasi baino lehenago. ZALDIBARKO UDALA

XXV. EUSKAL ELIKADURA ETA ARTISAUTZA AZOKA

Olaburu kalean 🕒 11:00-14:00 Urriak 6

Txahala burduntzi erara
Artisautza
Umeentzako tailerrak

Iurreta
Elezatze Udalak



Euskal Okela
EUSKAL LABEL

bbk

EUSKAL ELIKADURA
ETA ARTISAUTZA AZOKA

Zaintza langileentzako zerbitzua martxan da

Elorrioko Udalak berriro martxan ipini du etxeko lanen eta zaintzaren eremuan lan egiten duten edo haien enplegatuarentzat ere baliagarria den aholkularitza zerbitzua; irailetik aurrera, aurrez aurreko saioak eskainiko dituzte, hilean behin

A. M. ELORRIO

Elorriko martxan da berriro zaintza eremuan lan egin eta enplegatuarentzat aholkularitza zerbitzua. Asociación Mujeres con Voz elkarteak arduratzen da zerbitzua emateaz, eta, besteak beste, kontratazioari, soldadari, lanaldiei, oporrei, laneko prebentzioari, eta lan tramiteei buruzko informazioa ematen dute bertan. "Guretzat ezinbestekoa da Elorrioko etxeko langileen zein zaintza lanetan dabilzan emakumeen lan, gizarte eta bizitza-egoera hobetzea, lan eskubideei buruzko informazioa ematea, eta, beharrezkoa den kasuetan, lan esparruan eta herrian ondo integratzeko errekurtso eta aukerak helaraztea", azaldu du Julene Lazkano Elorrioko alkateak.

Zerbitzua urte osoan zehar egongo da martxan, hilean behin, barikuetan, 10:00etatik 15:00etara. Dagoeneko txanda eskatu



Joan zen egunean egin zuten aurkezpena.

daiteke, asesoria@mujeresconvoz.com helbidera idatzita edo 655 603 809 whatsapp zerbitzura idatzita.

Berdintasun plana, eskura

Bestalde, Elorrioko Udalak herritarren eskura ipini du Ber-

dintasunerako V. Planaren zirraborroa. Herritarrek urriaren 11ra bitartean egin ahal izango dituzte ekarpenak, email bidez edo udalean bertan idatzi bat erregistratuz. Planaren zirriborroa udalaren webgunean dago ikusgai.



Argi Gorriaken aurreko mobilizazio bat.

Osasungintza publikoaren aldeko plataforma sortu guran

Hainbat eragilek batzarrera deitu dute urriaren 3rako, osasungintza publikoaren alde plataforma sortzeko

A. M. ELORRIO

Elorrioko zenbait eragilek batzarrera deitu dute osasungintza publikoaren aldeko plataforma bat osatzeko. "Azkenengo urte bietan hainbat mobilizazio egin dugu Elorriko Osakidetzaaren egoera salatzen. Mobilizazio jendetsuak izan dira eta Argi Gorriak taldeak eta Pentsiodunen mugimenduak antolatuta dituzte, baina, osasungintza publikoaren egoera hobetzen ez denez, beste pauso bat emateko momentua dela uste dugu. Gure kezak ozen esateko momentua da", azaldu dute ohar baten bi-

tartez. Horrela, urriaren 3an batzarra egingo dute Ateneoan, 18:30ean. "Gure osasuna ez da merkantzia bat, gure eskubidea da. Hala ere, azkenengo urteetan egoera geroago eta okerragoa da gure herrian, eta Osakidetza orokorrean", gehitu dute.

Herritarrek kezkatuta jarraitzen dute osasungintzagaz Durangaldean, eta irailaren 19an eskualdeko manifestazioa egin zuten, Berrizen; ehunka lagunek parte hartu zuten bertan. Urriaren 3an beste mobilizazio bat egitekoak dira, Durangon. 19:00etan izango da.

EAREN USTEZ, ESTATUS BERRI BAT EZTABAIDATZECO GARAIA DA

Estatuagazko hartu-eman ereduari buruz berba egiteko une ona da, Eba Blanco EAko idazkari nagusiaren iritziz



Gorka Basterretxea eta Eba Blanco.

A. M. ZORNOTZA

Eusko Alkartasuna alderdi politikoak Zornotzan ospatu zuen Alkartasun Eguna. Ehun afiliatuk baino gehiagok parte hartu zuten bertan, Nazio Zuzendaritzako eta Kontseilu Nazionalako kideekin batera. Eba Blanco EAko idazkari nagusiak azpimarratu zuen "zumitz demokratiko nahikoa" dagoela estatus berri bati buruz berba egiteko: "Estatuagazko hartu-eman eredu berri bati buruz aritzeko, non euskal gizarteak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko duen eskubidea aitortuko duen". Bestalde, EAk Nestor Basterretxea artista eta afiliatu bermeotarra omendu zuen, bere jaiotzaren mendeurrena dela baliatuta. Gorka Basterretxea semeak jaso zuen oroigarria familiaren izenean.

Berrizburu futbol zelaiko argiztapena berrituko dute

Proiektuak 52.000 euroko lizitazio aurrekontua du, eta horren ia erdia Bizkaiko Aldundiak ordainduko du

A. M. BERRIZ

Berrizko Udalak Berrizburuko futbol zelaiko argiztapena berritzeko lanak lizitatu ditu. Proiektuak 52.000 euroko lizitazio aurrekontua du, eta ia erdia, 22.600 euro inguru, Aldundiak emandako laguntza batetik dator. Berriztatzeagaz, arazoa konpontzeaz gainera, eraginkortasun energetikoa hobetu gura du udalak; izan ere, Berrizko Udalaren esanetan, gaur egungo argiztapena "ez da nahikoa" lehiaketa federatuetan aritzeko. "Proiektagailu berriekin, gaur

egun eskatzen den jasangarritasun eta efizientzia irizpideetara egokituko da instalazioa, eta urtean 33.751 kW aurrezteko lortuko da. Horrek esan gura du urteko kontsumoa %65,2 jaitsiko dela, oraingo instalazioagaz alderatuta", azaldu dute ohar baten bitartez. Horrela, lau dorreetako argiteria LED teknologiako luminariekin ordeztatu da. Udalaren esanetan, argiztapen berriak 2024ko abendua baino lehenago egon behar luke martxan, lanak amaituta eta frogatuta.

KIROLERROTA

GIMNASIOA



39€
hilean

**Kirol
eskaintza**



CICLO



PUMP



HIT



TRX



BODY STRETCH



BALANCE



GAP



STEP CARDIO

Ezagutu gaitzazu hemen!

Intxaurren Kalea 54, Durango

info@kirolerrota.eus



Zapatuan Artzain Eguna ospatuko dute Axpen

Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Acol Elkarteak antolaturiko ekimenaren barruan, gazta dastatzea, artzain txakur txapelketa eta ardi-mozte erakustaldia egongo dira. Goizean zehar, Axpeko Antonio Alkorta artzaina omenduko dute

Joseba Derteano ATXONDO

Artzainak, ardiak eta artzain txakurrak protagonista izango dira beste behin ere Axpen. Euskal Herriko txapelketa lehiatu eta asteburu bira, zapatu honetan, Artzain Eguna ospatuko dute bertan. Baina kasu honetan ardiak izango dira protagonista nagusiak. Izan ere, Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Acol Elkarteak antolatu du ekimena.

Gazta dastatuta hasiko dute eguna, 11:00etan. Berez, txapelketa bat da. Izan ere, bertaratzen direnek hamar-hamabi gazta probatu eta puntuatu ahal izango dituzte.

Goizetik eguerdira, Zeanuriko ekoizle batek ardi latxaren artileagaz egindako jantziak, poltsak eta bestelakoak erakutsiko ditu, eta tailer bat eskainiko du. Bai tailer hau eta baita gazta lehiaketa ere, Axpeko frontoian izango dira. Ondoren, 12:30ean, ardi-txakur txapelketa



Artzain txapelketa bateko irudia, Axpen.

hasiko da; lau artzain txakur banagaz arituko dira: Aitor Urien (Abadiño), Xabier Arriaga, Amaia Hondartza eta Mikel Etxebarria.

Artzain Eguna beste ekimen bik ere osatuko dute: goiz osoan ikusgai egongo den ardi eta aharien erakusketak, eta

12:00etan hasiko den ardi moztailen erakustaldiak. Horrez gainera, Acol elkarteak diren eta 80 urtetik gora dituzten pertsonak omentzen dituzte urtero, eta, aurten, Axpen bertan bizi den Antonio Alkorta artzaina omenduko dute.



Joseba Sarrionandia asteleheneko aurkezpen ekitaldian izango da. AINHOA IRAOLA

Irakurketa kluba Atxondon, Joseba Sarrionandiagaz

Idazle iurretarraren eskutik, euskal literatura hobeto ezagutzeko aukera dago Atxondoko liburutegian

J.D. ATXONDO

Aurten, lehenengoz, helduentzako euskarazko irakurketa kluba ipini dute martxan Atxondoko liburutegian: *Gure literatura Joseba Sarrionandiagaz*. Izenburuak dioen moduan, Joseba Sarrionandia izango da dinamizatzailea, eta euskal literatura hobeto ezagutzeko aukera izango da bere eskutik.

Ekimenaren aurkezpen ekitaldia irailaren 30eko astelehenan izango da, 18:30ean, Atxondoko liburutegian. Ekimenaren barruko hurrengo saio biak urriaren 28an eta azaroaren 18an

izango dira. Aurrerago saio gehiago egon daiteke.

Sarrionandia aurkezpenean

Joseba Sarrionandia aurkezpen saioan izango da. Ekimeneko dinamika azalduko du eta parte hartzaileek elkar ezagutzeko aukera izango dute. Lehenengo saioa Sarrionandiak prestatu-riko testu batzuen ingurukoa izango da. Izen ematea 697 196 748 telefonora deituta eta liburutegia@atxondo.eus helbidera idatzita egin daiteke. Plaza mugatuak daude eta Atxondoko herritarrek lehentasuna dute.

Mañariko hilerrian dauden pitzaduren jatorria aztertu dute

Azterketaren ondoren, gune hartako lur mugimenduen jarraipena eta kontrola egiten jarraituko dute

J.D. MAÑARIA

Mañariko Udalak enpresa bat kontratatu zuen maiatzean, hilerriko gune batean antzemandako ezegonkortasunak aztertzeko. Hain zuzen ere, hilerriko iparraldean, zolarritik 10 zentimetro baino gehiagoko asentamendua dago, eta horren eraginez nitxoak baskulatuta daude. Horrez gainera, iparraldeko hegala horretan, Erleabeko erreka-aren eskumako ertzean, pitzadurak daude, batez ere zolarrietan. Horiek horrela, udalak horrelako azterketetan aditua

den Ingeotyc enpresari eman zion ikerketa egiteko ardura, maldak errekarantz duen egonkortasuna egiazatzeko eta hura konpontzeko modua aztertzeko.

Zundaketak egin ondoren, enpresak txosten bat egin du eta bertan ondorioztatu du hilerriko patologiak "asentamendu baten ondorio direla, maldaren desplazamendua baztertuz", jasotzen du txostenak. "Zundaketen bitartez lurra aztertu ondoren, lurpean materialak nola dauden zehaztu ahal izan da, bai eta haien karakterizazio



Mañariko hilerrian egin dute ikerketa.

geoteknikoa ere, tokian bertan eta laborategian egindako ikerketetan oinarrituta. Azterketa horien egonkortasunaren analisiak ez du pentsarazten Erleabe errekarako lurzoruen haurtura zirkularrik dagoenik, ezta

maila freatik altuko baldintzetan ere", zehaztu dute.

Hala ere, jarraipena egiten segituko dute, egindako zundaketetan pieza bereziak ipini dituztelako, luraren mugimenduen kontrola egiteko.

Nagusientzako mantentze-gimnasia hastear, Izurtzan

J.D. IZURTZA

Izurtzako Erdoitzako Ama nagusien elkarteak mantentze-gimnasia ikastaroa antolatu du aurten ere. Datorren astean bertan hasiko da, urriaren 1ean. Hortik aurrera, saioak martitzeno izango dira, 18:00etatik 19:00etara. Mantentze-gimnasian aditua den monitore batek emango ditu klaseak. Oraingoan, berderatzi bat lagunek eman dute izena. Izen ematea oraindino zabalik dago, martitzena bertan.

Nagusien elkarteagaz gainera, udalak ere hainbat ikastaro antolatu du ikasturte berrirako: gimnasia, luzaketa eta gimnasia posturala eta yoga.

ekarri zuk ere argindar
faktura goienerera



berriztagarria

bertokoa

euskalduna

kooperatiboa



goiener



📍 Satimami zumarkalea 26. Bilbo

✉ goiener@goiener.eus


🌐 www.goiener.eus

946 277 701
900 816 365

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

URRIKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo
etxera eramateko
1/2 litroko
2 tarrina.
Durango.



**Errigoraren
eskutik**
Euskal Herriko
produktuen
otzara.

UZTAILEKO IRABAZLEAK

Gosaria Xiberun:

Idoia Elorriaga Etxebarria eta Ainhoa Diez Sanz

Aukan izozkiak:

Nere Portillo Garramiola

Alcamporen otzara:

Idurre Baraia-Etxaburu Zubiaurre

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman
izena gure webgunean.

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Iazko Doniel Atxa jaso zuteneko irudi bat.

Iurretarrak sanmigeletan bete-betean sartuko dira bihar

Montoiko zubitik txapliguak botata, jaiak eztanda egingo du eguerdian. Arratsaldean, Doniel Atxa jasoko dute

A. Basauri IURRETA

Ekitaldiz beteriko egunak dituzte aurretik Iurretan. Jaiak bihar egingo du eztanda, Montoiko zubitik botatako txapliguekin batera. Arratsaldean Doniel Atxa jasoko dute plazan. Usadioak agindutakoa beteta, urriaren 12a heldu bitartean jai giroa izango da nagusi herriko kaleetan.

Jai batzordeak deneriko ekitaldiak batu ditu egitarauan; besteak beste, dantzariak, kontzertuak, lehiaketa gastronomikoak, bertsolariak, azoka, umeentzako jarduerak eta kirol ekital-

diak. Mozorro Egunerako Oktoberfest izango dute gaia.

Anderebideren urteurrena

Bestalde, aurten 15 urte bete dituen Anderebide elkarteak gonbidatuta, Alarma Morea rumba taldeak kontzertua eman go du Askondon, gaur, 21:00etan. "Emakumeen borroka eta ahalduntzea dira taldearen zutabe garrantzitsuetako bat. Bestea, euskara. Horiexek dira Anderebideren onarria", azaldu dute Anderebidekoek. Hartara, urteurrena ospatzera gonbidatu dituzte herritarrak.

Durungaldeko taldeak Altxa Burua mugimenduagaz bat

Besteak beste, sinadura bilketa bat martxan ipini dutela iragarri dute, eta ekimenean parte hartzera deitu dute

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Teknologiaren erabilera egokia bultzatu gura duten guraso taldeek osatzen dute Altxa Burua. Dagoeneko Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako 6.000 familia biltzen dituen herri ekimena da. Asmoa indarrak batzea eta saretzea da, honako helburu hauekin: seme-alabei interneterako sarrera duten gailuak emateko momentua atzeratzea, eskolak mugikorrik bako arnagune bihurtzea, eta helduak eta seme-alabak erabilera egokian trebatzea. Helburu horiekin, Durungalde-



Durungaldean sarea sortu dute.

Akiñenako pasabidea zabaldu dute Iurretan

Arriandi auzoan oinezkoen joan-etorri segurua ahalbidetzea eta erraztea du helburu pasabideak

A.B. IURRETA

Iurretako Arriandi auzoan, N-634 errepidearen alde biak eta Akiñenako autobus geltoki biak lotzen dituen oinezkoentzako pasabidea zabaldu dute. Hala ere, igogailuak ipintzeko daude oraindino. Lan horiek lizitazio fasean daudela azaldu dute udal arduradunek. "Laster erabili ahal izatea espero dugu, pasabidea pertsona guztientzat irisgarria izan dadin", argitu dute.

Arriandin oinezkoen joan-etorri segurua ahalbidetzeko eta errazteko helburuagaz eraiki dute pasabidea, eta bizikleta pistagaz bat egingo du Amezketan. Bizkaiko Aldundiak eraiki du. Iazko martxoan hasi ziren N-634 errepideari paralelo doan espaloia egiten, "oinezkoen segurtasuna hobetzea" helburu hartuta. Iurretako noranzkoan ezkerrean egin duten 500 bat metroko espaloiak oinezkoentzako pasabideagaz bat egiten du.

ko hainbat herri eta ikastetxe-tako gurasoak antolatuta daude jada, eta Altxa Burua mugimenduagaz bat egin dute. Hartara, hiru ekintza babestu dituzte.

Altxa Burua mugimenduak kanpaina bat ipini du martxan smartphonen erabilera arautuko duen lege bat lortzeko eta gizarte kontzientziatzen laguntzeko. Hiru dira kanpainako ekintzak. Batetik, Hezkuntza Sailera idatzia bidaltzea smartphoneak eskoletan legez debekatzeko; bestetik, Osasun Sailari idatzia bidaltzea gizarte kontzientziazio kanpaina bat eskatzeko; eta, azkenik, sinadura bilketa egitea aurreko eskakizun biak babesteko. Informazio guztia altxaburua.eus webgunean aurkitu daiteke. Mugimenduko kideek kanpainan parte hartzera deitu dute.

Zikloturistak prest Ganbarru martxaren estreinaldirako

Bihar izango da martxa, irailak 28. Herriko hainbat txirindulari ohik euren babesa erakutsi dute

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO


Abadiñoko Ganbarru martxa zikloturistak ez du edozelako estreinaldia izango bihar. Izen ematea beteta, 300 txirindulari parte hartuko dute martxan. Antolatzaileak pozarren dira: "Lehenengo edizioako izen ematean goia jotzea ametsik handiengan ere ez genuen imajinatzen", esan dute sare sozialetan. Bizkaiko Txirindularitza Federazioak antolaturiko Zikloturista Ligako parte da martxa.

Martxak ibilbide bi izango ditu. Ibilbide luzeak 120 kilome-

tro ditu, 2.260 metroko desnibel positiboagaz. Mendate hauek daude ibilbidean: Miota, Trabakua, Ixua, Elgeta, Kanpanzar, Krutzeta, Urkiola eta Larringan. Ibilbide laburrak 75 kilometro ditu, 1.320 metroko desnibel positiboagaz. Kasu honetan, parte hartzaileek Miota, Trabakua, Ixua, Elgeta eta Kanpanzar gainak igaroko dituzte. Martxa bien helmuga Abadiñoko Gaztañodi etorbidean egongo da.

Txirindulari ohiak martxan

Azken asteetan, hainbat txirrin-



Ganbarruko kideak martxako ibilbidea egiten.

dulari ohik euren babesa erakutsi diote martxari, eta parte hartuko dutela iragarri dute. Mikel Zarrabeitia, Egoitz Murgotio, Illart Zuazubiskar eta Unai Etxebarria dira euretariko batzuk.

IBILBIDE BI DAUDE, 120 KILOMETROKO LUZEA ETA 75 KILOMETROKO LABURRA

Mallabian 'Andabidea zordanbidea' ibilaldian izena emateko aukera

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Eskualdeko historian eta kulturaren murgiltzeko asmoz, Gerediagak hainbat ibilaldi antolatu du Durangaldean zehar, eta euretariko bat urriaren 19an izango da, Mallabian. *Andabidea zordanbidea* izena ipini diote ibilaldiari, eta 10:00etan hasiko da, udaletxearen aurrean.

Ibilaldira doazenez honako leku hauek bisitatuko dituzte: Oizko estazio megalitikoak, San Joan Bautista ermita, Andra Mari Jasokundearen eliza eta egungo hilerria. Ibilbidea egiteko, doako autobusa egongo dela azaldu dute antolatzaileek. Aurrez izena eman beharko da www.ondareabizkaia.eus webgunean.

Abadiñon 166 psikobonu ipiniko dituzte herritarren eskura

Abadiñoko Udaletik jakitera eman dutenez, EAEko bigarren herria dira bonu-kanpaina hau sustatzen



Edurne Maguregi alkateordea.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak, Psikologia Elkargo Ofizialagaz elkarlanean, *Psikobonoak* programa pilotua ipini du martxan. *Zure buruko osasuna zaintzen baduzu, zure bizitza zaintzen duzu* lelopean. Udalak 166 bonu eskainiko ditu psikologiako profesionalekin egingo diren saioretarako. 60 euroko diru laguntza emango dute bonuko, eta herritarrek 5 euro ordaindu beharko ditu. Bakoitzak 4 bonu erosi ahal izango ditu eta 4 hilabeteko epean erabili beharko dira.

"Osasun mentalaren inguruko estereotipoak haustearen alde egiten dugu. Arazoa ikusarazi gura dugu, arduraz berba egin horretaz, eta pertsona bakoitzak, bere adina edo egoera kontuan hartu barik, laguntza profesionala izan dezan sustatu. Terapiarako sarbidea normalizatu gura dugu, eta ziurtatu herritarrek badituztela bere osasun mentala zaintzeko behar dituzten baliabideak", azaldu du Edurne Maguregi Gizarte Ongizateko zinegotziak.

Izen ematea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean argitaratu ondoren zabalduko da, 15 egun naturaleko epeagaz, eta herritarrei jakinarazpena bidaliko zaie gero. Psikobonoak udal bulegoetan eta HAZen eskatu ahal izango dira.

Garaiko nagusiek San Migel eguna ospatuko dute domekan

Eguaztenean hasitako aste kulturala elkarteko kideen arteko anaitasun bazkariagaz borobilduko dute

Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko nagusiek aste kulturalaren beste edizio bat ospatu dute asteon, hamaseigarrena. Ospakizunak eguaztenean hasi zituzten, Otea Loran elkartearen antolaturiko mus txapelketagaz. Eta eguenean tute txapelketa izan zuten. Hori gutxi ez, eta arratsalde honetan briska txapelketa egingo dute afari-merienda batez lagunduta. Gaurko karta jokoa 17:00etan hasiko da, eta, behin amaituta, datorren urtera arte agurtuko dute aste kulturala.

Edozelan ere, ekintzak ez dira hor amaituko, Garaiko nagusiek egutegian sekula hutsik egiten ez duen San Migel eguneko bazkaria ere ospatuko dute eta asteon. Domekan izango da, irailaren 29an, 14:00etan, Otea Loran elkartearen.

Bazkalostean, aste kulturalako txapelketetako sari banaketa egingo dute, eta, azkenik, elkarteko kide askorentzat hunkigarria izaten den ekitaldia izango dute: kiderik beteranonek gainerako kideen omenaldia jasoko dute.

DIBA
KOOPERATIBA
Durangaldeko Baserritarren Elkarte
Muruetan, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

BSG MATIENA
BRAZILIAN JIU JITSU
Ume eta helduentzat
astelehenetik barikura.
ANIMATU ZAITEZ!
Informazio gehiago: [bsgmatiena](https://www.instagram.com/bsgmatiena) bsgmatiena@gmail.com




SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak sudokuko lauki zurietan.




PUNTUAK LOTU

Puntuak lotu eta irudia sortuko duzu.
Gero, margotu gurago duzun moduan.














































































LABIRINTOA



SEKUENTZIARI JARRAITU

Erleak loreen sekuentzia honi jarraitu dio behean dagoen ezti guztia lortzeko. Arkatzagaz egin bide egokia.





								
								
								
								
								
								
								
								
								
								

MARGOTU

Margotu gurago dozun moduan.








ZENBATU

Zenbatu ondoko animalia hauek.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiaren jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografietan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

Berria!

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, ur eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

Berria!

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua

**Sartu zure komertzioa
Anbotokideen deskontu sarean.
Atera etekina abantailei!**



**egin zaitez ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!**



Mirari Azkune.

"Walterrek diskoa ez ikustearen penagaz geratu gara"

MUSIKA MIRARI AZKUNE TRIKITILARIA ETA IRAKASLEA

Aintzane Agirrebeñak eta Mirari Azkunek 'Geuretik' lana kaleratu dute oraintsu

Aritz Maldonado DURANGO

Prozesu luze baten emaitza da *Geuretik* diskoa. Luzea, eta mal-kartsua ere bai. Izan ere, 2019an hasi zuten diskoaren grabazioa Aintzane Agirrebeñak eta Mirari Azkunek. Prozesuan, izurrite bat igaro dute, Azkunek eskua apurto zuen, eta, gainera, Walter Tuzzeo teknikaria -eta laguna- bihotzekoak jota hil zen grabazioa ia amaitua zegoenean. Aldatsa are tenteago egin zuen kolpea izan zen, dudarik barik. Zapatuan, bere omenez egingo duten jaialdian parte hartuko du bikoteak, eta arantza kentzen

ahaleginduko dira horrela. "Gatxa izango da, utzitako zuloa handia da eta", esan dute. Azkune (Etxebarria, 1989) trikiti irakaslea da Durangon, eta sarri ibili da bertako Alde Zaharretik kalejiran ikasleak eta kideak alboan dituela. ANBOTOK beragaz berba egin du.

"BERTSIOAK JOTZEN ERE DISFRUTATZEN DUGU, HARTU ETA GEURERA EKARTZEN DITUGULAKO"

Zer da 'Geuretik'?

14 kantaz osaturiko diskoa da. Abesti propioek eta geureratuek osatzen dute lana. Triki jaialdian parte hartu izan dugu urteetan, eta jotzen genuena bertan geratzearen pena izaten genuen. Biak joz disfrutatzen dugu, bai gure abestiak eta baita bertsiok ere, originalak hartu eta geurera ekartzen ditugulako, eta hitzak ere moldatzen dizkiegulako. Niri, adibidez, Bryan Adams asko gustatzen zait, eta bere kanta mitiko bat sartu dugu, bals eran jota. Jendeak entzun, eta

ezaguna egiten zaio, baina moldatuta dagoenez ez da hain nabarmena. Billy Joelen *Piano man*, eta Ramon Ayala mexikarraren eta Galy Galianoren abestiak ere badaude.

Horrez gainera, guk eta gure ingurukook egin dugun prozesu baten emaitza ere bada. Walter Tuzzeok parte hartu du diskoan, eta baita Eugenio Gisasola 'Lutxurdio'-k, Zalao Zenarruzabeitiak, Miren Errastik, Agurtzane Mujikak eta Iñaki Ortégak ere. Azala eta diseinua Mireia Agirrebeñak egin ditu; Aintzane eta Mireiaren amak ere idatzi ditu berba batzuk. Geure kabuz egin ahal izan dugun guztia geuk egin dugu.

Udan kaleratu duzue. Zelako harrera izan du?

Harrera ona. Jendeak bazekien grabatzen ari ginela, eta zer gertatu zaigun ere; beraz, zain egon dira. Beharbada uda ez da sasoirik onena diskoa kalera-tzeko, baina gu pozik gaude. Entzun duenari ere gustatu zaio.

Zer topatuko du entzuleak?

Kantatzea oso gustuko duten neska bi gara, trikitia eta pandero tradizionala jotzen ditugunak. Doinu aldetik, rantxerak, balsak edo tradizionalagoak diren fandangoa, porrusalda eta arin-arina entzun daitezke. Cumbiaren antza duten erritmoak ere entzun daitezke, baina trikitixa mundukoak, gu oso tradizionalak garelako. Eta kanta asko ere topatuko dute.

Luze joan zen grabazioa.

2019ko Markinako txapelketan jotako kantak ez ziren ondo grabatu, eta geure kabuz grabatzea pentsatu genuen, Walter Tuzzeoren estudioan, geuretzat. Baina, behin hasita, disko oso bat grabatzea pentsatu genuen. Baina gero pandemia eta itxialdiak etorri ziren, eta horren ondoren asko kostatu zitzaigun lanean hastea; gerora, eskua hautsi nuen, eta lokalean obrak egin zituzten. 2023an, nahikoa zela iritzita, grabazioa serio hartzen hasi ginen (barrez). Diskoa amaitzeko astebeite baino falta ez zela, Walter bihotzekoak jota hil zen. Proiektua eskegita

"TRIKITIA EZ DA HAINBESTE IKUSTEN KALEAN, URTE ASKOAN EGON BEHAR DUZULAKO JOTZEN"

geratu zen hor, baina Asier Gozategi eta Balea estudioetako lagunen eskuzabaltasunari eta ekinari eskerrak, diskoa kalera-tatu ahal izan dugu.

Tuzzeori asteburuan egingo dioten omenaldian parte hartuko duzue.

Bai, Eibarren izango da. Hamasei talde gaudela uste dut! Maitagaria zen eta ikaragarri balio zuen. Izan ere, musikaria zen, teknikaria... Diskoan oso parte aktiboa izan da, baxuak eta perkusioak berak jo dituelako. Sekulako ilusioa ipini zuen diskoan, eta berak emaitza ez ikustearen penagaz geratu gara. Baina, batzuetan, horrela datoz gauzak. Egun potentea izango da, oso ezaguna zelako Eibarren.

Baduzue diskoa zuzenean aurkezteko asmorik?

Erromeria solteak egiten ditugu urtean zehar, eta aurten ere horrela izango da, ez dugu ezer berezirik planteatzen. Nahiko nekatuta amaitu dugu diskoaren grabazioaren prozesu guztiagaz, eta deskonektatu beharra daukagu.

Diskoa Durangoko Mesoi Berrian duzue salgai. Trikitizaleak dira?

Durangon ematen ditut klaseak, eta urtean hainbat bider irteten gara kalera kalejiran. Beti amaitzen dugu Mesoi Berrian, Mila jabeari asko gustatzen zaiolako mundu hau. Ikasle baten bitartez galdetu nion ea CDaren kopia batzuk utzi nitzakeen bertan saltzeko, eta baietz esan zidan. Berak erosi zuen lehenengoa. Errezildarra da eta bere zaletasunak ez nau harritzen; berdin dio 02:00ak edo 16:00ak izan, beti gura du soinua entzun. Kalejira guztietan, han afaltzen amaitzen dugu. Ez diot inbidiatik, baina Urola inguruetan beste modu batera bizi dute triki. Nire aita azpeitiarra da, eta halakoa da.

Badago afiziorik Durangaldean?

Musika eskoletan eskaera handia duen instrumentua da trikitia. Jende askok ematen du izena bertan, aurrera ateratzeko gatxa den instrumentua izan arren. Asko jo behar duzu kalean jo gura baduzu. Horregaitik ez da ikusten hainbeste jende kalean jotzen, urte asko behar direlako, baina afizioa egon, badago. Durangaldean, itzela. Etorri nintzenez ikusi nuen hori, Markinan baino handiagoa dago hemen. Egoi Petite, Gorka Valdes eta kuadrilatxo hori ikustea baino ez dago, eta nire ikasle batzuk ere aipatu nitzake.

Zazpi proposamen historian murgiltzeko

ONDARE HISTORIKOA Europako Ondare Jardunaldien harira, Gerediaga elkarteak zazpi proposamen dakartza Durangaldeko historian eta kulturaren murgiltzeko; urriaren 6tik 27ra bitartean egingo dituzte jardunaldiak, udal batzuen laguntzagaz

A. M. DURANGALDEA

Gerediaga elkarteak *Bide, sare eta loturen ondarea* egitasmoa aurkeztuko du Europako Ondare jardunaldietan. Urriaren 6tik 27ra bitartean egingo dituzte aurtan jardunaldi horiek, eta Gerediagak zazpi ibilbide proposatu ditu bertan, Durangaldeko historia eta kultura hurbilagotik ezagutzeko. Lehenengo Berrizen izango da, urriaren 6an. 11:00etan hasita, ordu biko bisita proposatzen du Gerediagak, "San Joan Ebanjelistaren eliza eta Durangaldeko arte-fluxua ezagutzeko"; XVI. mendean hasi eta gaur egunera arteko ibilbide kronologikoa egingo du bisitariak, European puntakoak ziren tendentzia artistikoak hona zelan heldu ziren ezagutzeko. Berrizkoaz gainera, Abadiñon, Garain, Mallabian, Otxandion, Mañarian, Iurretan eta Zaldibarran ere egingo dituzte bisitak. Parte hartzea doakoa da zazpietan, baina izena eman beharko da aurretik. Izan ere, hitzordue-



Zazpi ibilbideetarako bat. GEREDIAGA

tako hirutan autobusa erabiltzeko aukera egongo da, distantzia luzeengaitik.

Berbaldia museoan

Europako jardunaldien aterkipean, berbaldia egongo da Du-

rangoko Arte eta Historia museoan. Urriaren 31n izango da, 19:00etan, eta euskal herritarren eta Uruguako Montevideoren arteko lotura aztertuko dute bertan. Berbaldia gaztelaniaz izango da.



Nøgen. MARIO LEZAUN

Nøgen gipuzkoarrak Abadiñon, Topagunearen eskutik

MUSIKA Ostera kultur festibalak hiru jardunaldi edukiko ditu aurtan, eta horietariko bat Abadiñon egingo dute

A. M. ABADIÑO

Euskaltzaleen Topaguneak Ostera kultur festibala antolatu du beste urte batez; aurtengoagaz, kultur jaialdi ibiltariak 25 edizio bete ditu. 'Euskaran mundu oso bat kabitzen da!' izenpean, festibalak egitarau zabala eskainiko du urrian eta azaroan. Hain zuzen ere, Osterak Abadiño bisitatu du azaroan. Lau egunetz, musika, dantza bertikala eta solasaldiak egongo dira. Azaroaren 28an, *Kulturgintza bihar: nola sustatu kultur-zaletasuna?* solasaldia egongo da Txanporta kultur etxean, 19:00etan; egun

bat geroago, Harrobik *Geure(r)a* dantza bertikal ikuskizuna egingo du Traña-Matienako frontoian. Hirugarren ekitaldia azaroaren 30ean izango da. Nøgen talde gipuzkoarrak kontzertua eman go du probalekuan. 20:00etan hasiko da eta doakoa izango da.

Aurtengo edizioa borobiltzeko, *Iratxoen kantu sekretuak* haur eta familientzako ikuskizuna egongo da ikusgai abenduaren 1ean, Errota kultur etxean; emanaldi hau 12:00etan izango da. Abadiñon ez ezik, Arrigorriagan eta Balmasedan ere egingo dute Ostera.



GAI LIBREAN

LIBE MIMENZA CASTILLO KAZETARIA

Terrorea I

Fiji, Samoa eta Vanuatu uhartediek hartu dituzte sareak uda agortu aitzin. Hare zurizko ur turkesa eta nareak, mila berdedun ñabarduraz betetako landaredia, palmondoak, bolkanak... geldi hor. Ez naiz gure inguruko oporretako argazkiez ari. Hango bertako herritarren ekimena da albiste: ekoizidua nazioarteko delituen zerrendan sartzeko eskaera aurkeztu dute, Hagako Nazioarteko Zigor Auzitegian.

Genozidioak badu halako delitu tipologia —bestirik esatea da kondenen eredugarritasuna—, eta gerta daiteke bihar edo etzi ingurumenean kalte larriak eragiteko probabilitate nabarmena dagoela jakinda egiten diren ekintza ez zilegi eta arbitrarioak ere juzgatzea.

GELDI HOR. EZ NAIZ GURE INGURUKOEN OPORRETAKO ARGAZKIEZ ARI. HANGO BERTAKO HERRITARREN EKIMENA DA ALBISTE

NOR IZANGO OTE DA ERABAKI EKOZIDENGATIK EPAITUKO DUTEN LEHEN NORBANAKO EDO AGINTARI POLITIKOA?

Nor izango ote da erabaki ekoizidengatik epaituko duten lehen norbanako edo agintari politikoa?

Orain ditugu Guggenheim museo bat eta biosfera bat, batzuek nahi dituzte bi museo eta «biosfera» erdi. Eta Urdaibai ez da soilik Urdaibai. Geografikoki Durangaldeko herritar askoren betiko hondartza izateaz aparte, gaur eta hemen Urdaibai da jendearen eta lurraren aldeko edo kontrako borroka.

Sarah Chayes idazlearenak dira ondoko berbak: «Estraktibismoa da hartu eta bueltan ezer ez itzultzea, lurrari eta jendeari kentzea, trukean pertsona gutxi batzuk aberasteko. Ez dute ezer uzten, onura bakar batek ere ez du eraginik izaten ez jende arruntarengan ezta lurrarengan ere».

Besterik esatea da horrorea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 27

ABADIÑO Batzarra

Gaubeltza antolatzeke batzarra gazteentzat. Udalak antolatuta, Katalamixon elkarteak lagunduta. *Txanporta kultur etxean, 19:30ean.*

BERRIZ Jaiak

Donien Atxa jasotzea, 19:00etan. Ondoren, odoloste jana. Bolo txapelketa, 20:00etan. *Okango auzoan.*

DURANGO Kirola

TRX, Gazte-Fit eta Strong by zumba ikastaroetako atek zabaltzeko jardunaldiak. Ordutegiak eta informazioa: Durango Kirolak. *Kiroldegian.*

DURANGO Erakusketa

'Durango habitat' (Rai Bikandi). *Ezkurdi erakustaretoan, irailaren 29ra bitartean.*

DURANGO Erakusketa

'Paisaia genero piktorikotik haratago' (museoko bilduma). *Arte eta Historia Museoa, irailaren 29ra bitartean.*

ELORRIO Erakusketa

80ko hamarkadatik aurrerako borroka sozialen lekukotasuna gordetzen duen erakusketa (Elorrixa Ekologia Taldea). *Iturri kultur etxean, irailaren 30era bitartean.*

IURRETA Musika

William (Los Brazos). *Korta tabernan, 20:30ean.*

ZALDIBAR Bertsoak

Bertso afaria: Nerea Ibarzabal, Aroa Arrizubieta eta Julio Soto bertsolariekin. *Goierriko auzo etxean, 21:00etan.*

ZORNOTZA Jaiak

Gazte Barria txaranga, 20:00etan. Patata tortilla txapelketa eta mus txapelketa azkarra, 20:30ean. Bolo txapelketa, 22:30ean. Mariachia: Francisco Balbuena 'Pancho', 22:00etan. Ondoren, DJ Edugarmar. *Dudeako San Migel auzoan.*

BERRIZ Musika

Berrizko Okango auzoan jai giroan murgilduko dira asteburuan. Zapatuan, Eñaut Zubizarreta 'Trigger' musikariaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute bertaraten direnek. *Irailaren 28an, 20:00etan, Okango auzoan.*

ZORNOTZA Erakusketa

'Gauoko argazkiak' erakusketa kolektiboa (Uztargi.klik elkarte). *Zelaieta zentroan, irailaren 29ra bitartean.*

ZAPATUA 28

ABADIÑO Topaketa

XXXI. Perretxiko bilketa. Baturiko perretxiko guztiak erakutsiko dituzte, Izadi Natur Zientzia Elkarteke kideek aztertu eta sailkatu ditzaten. Geredixa mikologia elkarteak antolatuta. *Errota kultur etxean, 18:30ean.*

BERRIZ Jaiak

Umeentzako jolasak eta bolo jokoa, 17:00etan. Txirringularitza lasterketa herrikoia, 18:00etan. Trigger taldea, 20:00etan. Arratsalde osoa zehar, odolostea. *Okango auzoan.*

ELORRIO Jaia

Kulotxa Jaialdia. Artisau azoka, 11:00etan. Puzgarriak (11:00-14:00 / 17:00-19:00). Jolasak eta eskulanak, 11:00etan. Mus txapelketa, 17:00etan. Txokolatada, 18:00etan. Afari kontzertua: Samba Badago, 20:00etan (Xelai taberna). *Kulotxa auzoan.*

ZORNOTZA Jaialdia

XXIII. Txistua Eguna. Txistua astintzen (Donostia), Usartza (Eibar), Gazteak (Erreterria), Euskal Giroa (Sestao), Jaizale (Durango), Oskia



AINHOA IRAOLA

(Iruña), Kankinkabara (Bermeo) eta Udazken (Zornotza). *Herriko kaleetan, arratsaldean.*

ZORNOTZA Jaiak

Mozorro eguna. Baselizak zeharkatzeko ibilbidea, 10:00etan. Haurrentzako animazioa, 12:00etan. Umeen bolo txapelketa, 12:30etan. Igel txapelketa, 13:00etan. Trikipoteoa. Paella lehiaketa, 14:00etan. Bazkaria. Briska txapelketa, 17:00etan. Xaibor, 17:30etan. Hestebeteen altuerako txapelketa, 19:00etan. Primo Bayo bere Party Carroagaz. Umeen mozorrorik onenaren saria, 21:00etan. Denok dantzan mozorrotuta. Nagusien mozorrorik onenaren saria, gauerdian. *San Migel Dueda auzoan.*

DOMEKA 29

ABADIÑO Umeen Euskal Jaia

Taldeak elkarteak, 10:30ean. Kalejira, 11:00etan. Alardea, 12:30etan. Bazkaltzera, 14:00etan. Elkargunea, 16:30ean. Erromeria, 17:00etan. *Zelaietan.*

ABADIÑO Erakusketa

XXXI. Perretxiko Erakusketa. Perretxiko banderillak probatzeko aukera. *Errota kultur etxean, 11:00etan.*

BERRIZ Jaiak

XXVIII. Berrizko Baselizan Oinezko Ibilaldia. Ibilbide luzea (24 kilometro) egin gura dutenak 07:30ean irtengo dira, San Migel baselizatik. Laburra (14 kilometro) egingo gura dutenak, 09:00etan. Meza auzoko hildakoen omenez, 11:00etan. Ondoren, Iremiñe dantza taldearen erakustaldia. Odolosteak jateko aukera, 11:00etatik aurrera. *Okango auzoan.*

ZALDIBAR Goitibeherak

Goitibehera txikia. *Hirukurutzetan, 16:00etan.*

ZORNOTZA Jaiak

Meza, 12:00etan. Gero, luntxa trikitilariekin. Udabarri dantza taldea, 13:00etan. Herri bazkaria, 14:30etan. Bingoa, 17:00etan. Zornotzako Musika Banda, 19:00etan. Parrillada eta txokolatada, 19:30ean. Errifaren zozketa eta jaien amaiera, 20:30ean. *San Migel Dueda auzoan.*

BARIKUA 4

ELORRIO Dantza

'La voz eterna' (La Mov dantza konpainia). *Arriola antzokian, 20:00etan.*

ZINEMA

ABADIÑO**ERROTA KULTUR ETXEAN**

Errekatxo baten onduen
barikua 27: 20:30.

DURANGO**ZUGAZA ZINEMA****La virgen roja**

barikua 27: 18:00, 20:30.
zapateria 28: 19:15, 21:30.
domeka 29: 19:30.
astelehena 30: 18:00, 20:15.
martitzena 1: 18:00, 20:15.
eguzatena 2: 19:00.

Soy Nevenka

barikua 27: 18:00, 20:30.
zapateria 28: 17:00, 19:15, 21:30.
domeka 29: 17:00, 19:30.
astelehena 30: 18:00, 20:15.
martitzena 1: 18:00, 20:15.
eguzatena 2: 19:00

Emmanuelle

barikua 27: 18:00, 20:30.
zapateria 28: 19:15, 21:30.
domeka 29: 19:30.
astelehena 30: 18:00, 20:15.
martitzena 1: 18:00, 20:15.

Del revés 2

zapateria 28: 17:00.
domeka 29: 17:00.

Gru 4

zapateria 28: 17:00
domeka 29: 17:00

Mugaritz. Sin pan ni postre
martitzena 2: 19:00

ELORRIO**ARRIOLA ANTZOKIAN****Volveréis**


zapateria 28: 20:00.
domeka 29: 20:00.
astelehena 30: 20:00.

ZORNOTZA**ZORNOTZA ARETOA****Bitelchús, Bitelchús**

barikua 27: 20:00.
zapateria 28: 20:00.
domeka 29: 20:00.
astelehena 30: 20:15

Koati

zapateria 28: 17:00.



IURRETAKO SAN MIGELAK

IRAILAK 27

14:00 Jubilatuen bazkaria. Askondon.
Jarraian, Uribesalgo soinu-joleagaz erromeria.

17:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots **Urteak bete, abenturak bizi!** ikuskizuna. Plazan.

18:00 Jaietako kamisetak sortu eta txokolatada. Etxegon.

18:00 Anderebide lurretako Emakumeen Elkartearen batzar nagusia, 15. urteurrena. Ibarretxe kultur etxean.

19:00 2. Mailako bikotekako Bizkaiko esku pilota txapelketa

21:00 Alarma Morea taldea. Askondon.

IRAILAK 28

SAN MIGEL BEZPERA

12:00 Jaien hasiera Montoitik. Ondoren, kalejira herrian zehar, Bizkaiko gaiteroek alaituta.

13:00 Paella solidarioa, 'Una esperanza para Celia' Askondon.

14:30 Gazte bazkaria. Plazan.

18:30 Ohiturazko Doniel Atxa. **Jarraian**, lurretako dantzarien azken entsegua.

21:30 Tributo a Mecano. Askondon.

22:30 EzDokBape kontzertua. Plazan.

23:30 Beranduegi erromeria. Plazan.

IRAILAK 29

SAN MIGEL EGUNA

9:00 Dorletako Santutegira eskaintza. Txirindulari elkartearen 40. urteurreneko maillota bertan uzteko. Irteera: Eskoriatzatik Leintz Gatzagako Dorleta Santutegira.

11:00 Dantzari eta agintarien kalejira. Montoitik plazara.

12:30 lurretako dantzariak. Ondoren, trikitilariak.

17:30 Herri kirol erakustaldia. Parte hartzaileak: Ioritz Gisasola 'Zelai IV.a', Urdax Magunazelaia, Jon Gisasola 'Zelai V.a', Xabier Gutierrez eta Karmele Gisasola 'Zelai III.a'. Plazan.

18:30 lurretako dantzariak.

20:00 Kantu eta dantza Eingo taldeagaz. Plazan.

IRAILAK 30

12:30 Kalejira Montoitik, trikitilariak alaiturik.

17:00 Sigi Saga Bizikletako jolasak, eta, jarraian, txiki merienda. Askondon.

*5 urtetik 12 urtera arte. Tiketak Ibarretxe kultur Etxean Irailaren 16tik 25era bitartean.

18:30 Harri proba erakustaldia. Harriti emakume taldea.

19:30 Garaia Durangaldeko ikus-entzunezko biltegiko lurretako bideo zaharren emanaldia. 'Iurreta askatu (1985)' Juanjo Lopez zuzendaria. Jaietako mozorro eguneko ikuskizun zaharra. Goiuria Ikastolan.

URRIAK 3

19:00 XXXVIII Cafes Baque eskuz banakako pilota txapelketako finalerdiak.

19:30 Bideo emanaldia: 'Azken Dantza maisua' dokumentala. Ibarretxe kultur etxean.

URRIAK 4

MOZORRO EGUNA: OKTOBERFEST

17:30 Pintxo txapelketa. Etxegon.



MONDOSONORO.

Urriaren 4an, 24:00etan Raimundo El Canastero Kontzertua.

Lizarra ingurutik datorren taldeak ukitu berritzaileak dituen runba emanaldia egingo du.

Arratsaldean Tortilla Txapelketa. Kaskoan.

20:00 Tortillen aurkezpena. Askondon.

21:30 "RUMBO A TIJUANA" Mariatxiak. Askondon.

22:30 Bertso saioa: Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Oihana Bartra, Xabat Gallettebeitia. Gai jartzailea: Ainhoa Urien. Kepa Arroitauregi frontoian.

22:30 - 1:30 Alkoholaren arriskuak murrizteko aktibitatea.

24:00 Kontzertuak: Ziñez eta Raimundo El Canastero. Ondoren, Lumatxak DJa. Plazan.

URRIAK 5

12:30 Aburrecalles txaranga.

14:30 Paella txapelketa. Ondoren, bazkari herrikoia. Askondon.

18:30 Aburrecalles txaranga.

21:00 - 22:00 Luhartz erromeria. Plazan.

22:45 Luhartz erromeria. Ondoren, Xaukena Xauk DJa. Plazan.

URRIAK 6

ERROSARIO EGUNA

10:00 - 14:00 XXIV Nekazaritza eta Artisautza Azoka. Olaburun.

11:00 Dantzari eta Agintarien kalejira. Montoitik plazara.

12:30 lurretako dantzariak. Ondoren, Igel Txapelketa.

18:00 Dantza ikuskizuna. lurretako dantzariak eta talde gonbidatua. Plazan.

Ondoren, jaietako errifan zozketa.

20:00 Herri afaria. Plazan.

20:30 Erromeria Lorratz taldeagaz. Plazan.

22:00 Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz.

URRIAK 11

19:00 Erromeria Intxausti eta Larrañaga trikitilariak. Plazan.

URRIAK 12

URRIJENA

09:15 Argazkia. lurretako Plazan.

10:15 Kalejira aparkalekutik plazara, herriari buelta emanez.

12:00 Dantzari Dantza eta Gorulari Dantza

Jarraian, omenaldiak 65 urtetik gorakoei.

Amaitzeko, Soka Dantza.

15:00 Bazkaria. Askondoko karpan.

17:00 Kantaldi/dantzaldia Bada Giro taldeagaz.

"Tor probak dena eskatu eta dena ematen dizu"

MENDI PROBA Ibon Pujana durangarrak Tor des Geants proba gogor eta prestigiotsua amaitu du. Sei egunez bere gaitasuna muturrera eraman duen erronka izan da, baina ordainetan jaso duen esperientziak dena kopentsatzen duela dio lasterkariak

Joseba Derteano DURANGO

Ibon Pujana Iturbek (Durango, 1971) birritan egin du Ehunmilak lasterketa (171 km), eta behin Kangas Mountain traila (60 km), Europako Tontorrek traila (70 km), Gran Canaria ultra traila (126 km) eta Mont Blancoko ultra traila (170 km). Tor des Geants orain arteko bere erronkarik gogorrena izan da. Sei egunetan osatu ditu probako 350 kilometroak, 30.000 metroko desnibel positiboa gaindituta. Akituta, baina bizitako esperientzia oso berezia izan den sentsazioagaz bueltatu da Italiako Alpeetatik.

Zelako esperientzia izan da?

Niretzat abentura bat izan da lasterketa bat baino gehiago. Hainbeste kilometroan gauza asko gertatu daiteke eta, egia esanda, horrela gertatu da.

Zer izan da gogorren egin zaizuna?

Laugarren egunetik aurrera ekaizta sartu zen eta tenperatura asko jaitsi zen. Sentsazio termikoa -15 gradukoa zen. Gai-



Ibon Pujana, Tor des Geants-eko helmugan.

lurretako elurra izoztuta zegoen eta kranpoiak ipinita ibili behar izan nuen. Gainera, haize bortitza egin zuen. Egoera benetan gogorra bizi izan nuen, 3.000 metrotan ibili ginelako sarri-

txotan. Eguraldi iragarpenak ez ziren hain txarrak, baina toki horietan eguraldia egun batetik bestera aldatzen da.

Fisikoki zelan eragin dizu?

Belaunetik sufritu dut, baina

probara justuan nentorren. Izan ere, abuztuaren prestakuntza modura Pirinioetako GR11ko etapa batzuk egin nituen eta tibia-tendoian lesio bat izan nuen. Ia ezin nintzen ibili ere egin. Tor des Geants ate joka zegoen eta Iñaki Osoro fisioterapeutari eskerrak hobera egin nuen. Osatu antzean joan nintzen Italia aldera. Lehenengo etapa ondo egin nuen, baina bigarrenetan moleskiak izan nituen. Jakina, entrenamenduak gauza bat dira, baina hankari hainbeste desnibel eta kilometro exijitxen diotuzuean... Hango medikuagaz egon nintzen. Txipa aldatzeko eskatu zidan, korrika barik oinez arin ibiltzeko, eta halantxik egin nuen. Bidean ordu gehiago eman nuen, baina, tira, ez zidan ardura izan, nire helburua amaitzea zen eta, egindako denborari begiratu barik.

Proba bertan behera uztea pasatu zitzaizun burutik?

Ez, burugogorrek gara eta! Behin han egonda, aurrera egin nuen. Edozein gauzaren gainetik proba amaitzea nuen helburu. Abentura hauetan garrantzi handia du buruak. Etapa bakoitza ordu asko dira, 18 inguru, eta ez dakizu zer gertatu daitekeen. Hau da, ez dago jakiterik arazoak nondik etorri daitezkeen, gauza bat ez bada beste bat izan daiteke. Lo gutxi egiten da, ordu bi eskas eguneko. Fisikoki ondo prestatu behar duzu, jakina, baina ehuneko handi bat men-

tala da. Animo aldetik oso baxu zauden uneetan, indarra bilatu behar da aurrera egiteko, momentu hobeak etorriko direla konbentzitu behar duzu zeure burua.

Bakarrik ibili zara?

Lehenengo egunetan bai, baina gero taldetxo bat osatu nuen Andaluziako, Kataluniako eta Ondarroako lagun banagaz. Antzerako erritmoan gindoazen laurok. Taldean joateak burua distraitzen laguntzen du. Edozer gauzari buruz berba eginda ere burua beste kontu batzuetan duzu. Bestela, etapak oso luze egiten dira. Elkarregaz heldu ginen helmugara, eta elkarregaz bazkaldu genuen gero. Horrelako hartu-emanak Tor des Geants probako beste alderdi positibo bat dira.

Beraz, ona eta txarra balantzan ipinita, esperientzia positiboa izan da?

Oso positiboa. Tor des Geants abentura gogorra da eta dena eskatzen dizu, barruan duzun guzti-guztia, baina ordainetan dena ematen dizu. Oso bizipen bereziak eskaintzen dizkizu.

"EKAITZA SARTU ZEN ETA GAILURRETAKO ELURRA IZOZTUTA ZEGOEN. KRANPOIEKIN IBILI NINTZEN"

Arroitajauregiren oroimenezko txapelketa gaur hasiko da

TRINKETA Paletan bikote mistoek jokatu dute berriro. Esku pilotan, buruz buru, promesa gazteak dira faborito

J.D. ABADIÑO

Kepa Arroitauregiren oroimenezko 5. trinket txapelketak bariku honetan hasiko du bere bidea. Ondoren, bariku arratsaldero izango dira jardunaldiak, Abadiñoko Tornosolo trinketan, urriaren 25eko finalera heldu arte. Gaurko jardunaldia 18:00etan hasiko da.

Modalitate bitan jokatu dute: paleta goman eta esku pilotan. Paletan bikote mistoak arituko dira, zortzi guztira, iaz hasitako bideari jarraituta. "Konturatu gara ez dagoela diferentzia

MIKEL GARCIA MALLABITARRA BERRIRO TXAPELA LORTZEN SAIATUKO DA, GOROSTIAGAGAZ

handirik. Iaz, esaterako, partidu orekatuak izan ziren. Horregaitik, bikote mistoekin jarraitzea erabaki dugu", adierazi zuen Aitor Arabiourrutiak martitzeneko prentsurrekoan. Esku pilotan, sei pilotarik buruz

buru jokatu dute. Esku pilotan "promesa handi bi" dira faborito nagusiak: iaz txapeldu-norde geratu zen Jon Jara gipuzkoarra eta Arai Murillo nafarra. Eurekin batera, lau bizkaitar arituko dira; tartean, Ibai Arroitauregi iurretarra eta Iker Escamez abadiñarra.

Paletan eskualdeko hiru ordezkari daude: Durangon bizi den Iñigo Arrieta gasteiztarrak Ane Ibañez arabarragaz jokatu du; Mikel Garcia mallabitarra Paula Gorostiaga nafarragaz, eta Iker Agirresarobe elorriarrak Ipar Euskal Herriko Marie Martinegaz. Garciak binakako txapela jantzi zuen iaz, Laura Saezegaz. Izenei erreparatuta, Unai Sagarzazu gipuzkoarra eta Maritxu Housset dira txapelketa irabazteko hautagai nagusiak.



Aitor Arabiourrutia eta Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentea, aurkezpenean.

Zaldua Trail lasterketan, baita ibilbide laburra ere

MENDI LASTERKETA Zaldibarko mendi probak bigarren aldia egingo du zapatuan. 20 kilometroko probagaz gainera, 14 kilometrokoa ere antolatu dute eta horixe da aurtengo nobedade nagusia. 100 bat parte hartzaile batzea itxaroten dute

Joseba Derteano ZALDIBAR

Zaldua Kirol Elkarteko mendi taldeak Zaldua Trail lasterketaren bigarren aldia antolatu du zapatu honetarako. Iazko aldiagaz gustura geratu ziren eta aurtun jarraipena ematea erabaki dute.

Aurtun lasterketa bi egongo dira: 20 kilometrokoa eta 14 kilometrokoa. Bigarren hori nobedadea da. Herriko korrikalarietara eta proba laburragoetan hobeto moldatzen direnei begira antolatu dute. 743 metroko desnibel positiboa du, eta luzearen antzerako ibilbidea. Ibilbide luzeagaz alderatuta, honako hau da aldea: Eitzaga auzotik zuzenean joango dira Aixolako presara, Egoarbitza tontorra igorarik.

Lasterketa luzeak iazko ibilbide bera du, 1.235 metroko desnibel positibokoa. Korrikalariak Goierrri ingurutik Eitzagara joango dira. Hortik aurrerako bidea gorabeheratsua da



Santamañazar ingurutik igaroko dira.

eta Egoarbitzarako igoeran daude aldatsik gogorrenak.

Proba biak Zaldibarko udal-txe pareko plazatik hasiko dira: luzea 10:00etan, eta laburra 10:15ean. Lasterketa bien artean 100 bat korrikalari batuko dira.

Zaldibarko probaren ondoren, eskualdeko mendi lasterketen eskaintzak ez du atsedetik hartuko. Urriaren 5ean Anboto Kilometro Bertikala lehiatuko da, eta urriaren 6an Aramotz mendi lasterketa.



Gurutze Frades Nizako Ironmana amaitzen. GURUTZE FRADES

Fradesek merezitako 15. postua lortu du munduko txapelketan

IRONMANA Bere helburua bete du. Igerian eta bizikletan sendo aritu, eta korrika saioan hainbat postu irabazi zuen

J.D. IURRETA

"15 onenetan geratzea itzela litzateke", adierazi zuen Gurutze Fradesek (Iurreta, 1981) Ironmanen munduko txapelketaren aurreko egunetan. Iragarpena baino gehiago desio bat zen, parte hartzaileen maila handia ikusita. Baina triatlolari iurretarrak beste behin ere erakutsi zuen ez dela erronken aurrean kokiltzen den horietarikoa, eta desio zena errealitate bihurtu zuen joan zen domekan: 15. toki munduko txapelketan.

Fradesek 57 minutu eta 46 segundoko denboran osatu zituen igeriketako 3,8 kilometroak, eta

5.35.03an bizikletako 180 kilometroak. Azkenik, ohikoa duen moduan, maratoian postuak aurreratu zituen: Profesionalen artean, maratoian 10. denborarik onena izan zen berea: 3.02.43. Kilometro bakoitzeko batez bestekoa: 4 minutu eta 21 segundo.

Zazpigarren parte hartzea

Frades zortzi bider sailkatu da munduko txapelketa baterako, eta zazpitan parte hartu du. Iazko egin behar izan zion, gaixo zegoelako. Posturik onena 2022an lortu zuen, Utah-n (AEB): bederatzigarren



JOKALDIA

OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR MENDI LASTERKETAK

Eskerrik asko eta zorionak, Mañaria

Ez dakit zelan hasi azaltzen aurreko zapatuan Mañariko mendi lasterketan bizi izandakoa. Bueno, bai, izenburuan idatzi dudana esanda: Eskerrik asko eta zorionak, Mañaria.

Mañaritik Atxetara mendi lasterketaren berri izan nuenean, zirrara berezitzo bat sentitu nuen. 42 kilometroko mendi maratoia Durangaldean, gure parajeetan, txakurrekin gora eta behera ibiltzen naizen mendi, zelai eta basoetan. Atxarte, Astxiki, Larrano, Zabalandi, Urkiolamendi, Urkiola, Untzillatx... Ibilbide ederragorik! Ezin gehiago eskatu. Eta seguru nago parte hartu zuten Durangaldeko gainerako korrikalarietara ere (eta beste denek) berdintsu pentsatuko dutela eta eurek ere zirraratxo hori sentitu zutela; eta parte hartu ez duten batzuei arantzatzkoa geratu zaiela dortsala ipini ez dutelako. Trankil, datorren urtean.

Aitor Zunuzunegi legorretarra ere etorri zen, eta irabazi egin zuen, baina irabazi izana baino garrantzi-

tsuagoa iruditu zitzaidan dortsala ipintzen geundela esan zuena: "Datorren asteburuan munduko kopako proba daukat, eta igual komeni ez hemen parte hartzea, hau hain gogorra izanda ez naizelako ondo errekupe-ratuko, baina beti gabilta honako lasterketa gogor eta ederren bila, Italian eta halakoetan, eta nola ez naiz, ba, etorriko!". Debako Irene Sarrionandia korrikalari beteranoak ere ezergatik ere ez zuen galdu gura izan umetan jolasten zen Atxarteko parajeetatik pasatzen den lasterketan parte hartzeko aukera.

MAÑARITIK ATXETARA MENDI LASTERKETAREN BERRI IZAN NUENEAN, ZIRRARA BEREZITXO BAT SENTITU NUEN

Egia esan, Mañaritik hasita, aukera mordoa dago mendi aldera tirtu eta ibilbide txukun bat aukeratzeko, baina lasterketa baterako ibilbide egokia egitea ez da erraza izaten, eta, nire gusturako behintzat, bete-betean asmatu duzue. Aukeran, sasoi honetarako, lasterketa gogorregia da beharbada, denboraldia aspaldi hasi genuelako eta udan mundu guztiak ez daukalako gura duen beste denbora halako erronka handi bat prestatzeko, baina, tira, 22 kilometroko lasterketa laburragoa ere ipini duzue aukeran, eta makina bat lagunek gozatu dute horretan. Gainera, Urkiola Koparako puntuagarria izan da, Sorginen Lasterketagaz eta Aramotz lasterketaz batera. Mendi martxa eta haurrentzako lasterketa ere "azierito" itzela izan dira.

Eskerrik asko eta zorionak, berriro, antolakuntzan ibili zareten denoi, den-denean azartatu duzue eta. Okerrik ezean, datorren urtean ere Mañaritik Atxetara joango naiz.




Lasterketa laburreko korrikalarien irteerako argazkia. LUCIA MERUELO



Aitor Zunuznegi. LUCIA MERUELO



Asser Alonso. LUCIA MERUELO



Aitor Orue eta Rai Oar. LUCIA MERUELO

Azkorbebeitia eta Zunuznegi garaile Mañaritik Atxetara mendi maratoian

Proba honen estreinako aldiak erantzun ezin hobe izan zuen joan zen zapatuan. Eguraldia lagun, Durangaldeko mendi-txokorik ederrenetarikoa zeharkatu zituzten

Jone Guenetxea MAÑARIA

Mañaritik Atxetara mendi lasterketa jokatu zen joan zen zapatuan. Lasterketaren estreinako aldia izan da eta erantzuna ezin hobe izan zen. Probak 373 parte hartzaile batu zituen guztira: 121 korrikalari maratoian, 170 maratoi erdian, eta 80tik gora martxan.

42 kilometroko proba luzea

Proba luzea 42 kilometroko ibilbidea izan zen, maratokia. Emakumeetan, Durangaldeko hiru emakume igo ziren podiumera. Oihana Azkorbebeitiak (Abadiño) irabazi zuen (6.13.01), Ai-

nara Arkarazo (Abadiño) helmugaratu zen bigarren (6.28.45) eta Eva Lizarralde (Iurreta) hirugarren (7.24.57).

Mutiletan, Aitor Zunuznegi nagusitu zen, proba bost ordu pasatxoan eginda (5.08.26). Ibai Urrutia sailkatu zen bigarren (5.25.19), eta Martin Diez hirugarren (5.27.42).

22 kilometroko proba laburra

22 kilometroko proban ere Durangaldeko hiru emakume nabarmendu ziren: June Villarroel elorriarra izan zen garailea (3.03.31), Leire Uribe otxandiarra bigarrena (3.15.09), eta Eider

Gorritxategi durangarra hirugarrena (3.30.35).

Mutiletan, Irazu Aranburu mallabitarra irabazi zuen (2.28.35). Bere atzetik, Josu Caño helmugaratu zen (2.31.31) eta Mustafa Mahfouf-ek osatu zuen podiuma (2.35.51).

Proba laburra Urkiola Trail Koparako puntuagarria da, eta June Villarroelek jarraitzen du kopako lider nesketan, eta Irazu Aranburu da orain liderra mutiletan. Kopako azken proba Aramotzekoa izango da, urriaren 6an. Kirol probak amaituta, jai giroa nagusitu zen Mañariko plazan.



Erlantz Zaldunbide. LUCIA MERUELO



Dantzarien saioa proba laburra hasi aurretik. LUCIA MERUELO



Ainara Arkarazo eta Iñigo Legorburu. LUCIA MERUELO



Luken Zamakona. LUCIA MERUELO



Oihana Azkorbebeitia. LUCIA MERUELO



Hainbat korrikalari Mañaritik igarotzen. LUCIA MERUELO



Jon Erdoiza eta Ekaitz Alberdi. LUCIA MERUELO

GUARDIAKO BOTIKAK

IRAILAK 27

09:00-09:00

Unamunzaga, Muretatorre 2C - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

IRAILAK 28

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

IRAILAK 29

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

IRAILAK 30

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URRIAK 1

09:00-09:00

Bazan, Urbarri 5 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URRIAK 2

09:00-09:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URRIAK 3

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño


Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatu gozotegia



IURRETA

Lur

Hamabost urte potolo egin dozuz. Jarraitu hain jator eta maitagarri. Etzeko guztiok maite zaitugu! Zorionak, Lur! Mosu handi-handi bat!



ELORRIO

Libe

Urriaren 2an, 7 urte. Zorionak, neska handi! Oso ondo pasatu zure 7. urtebetetzean. Muxu erraldoi bat etzekoen partez.



ZALDIBAR

Eneko

Irailaren 28an, 4 urte. Irailaren 28an gure Enekok 4 urte egingo ditu. Zorionak etzeko guztien partez eta jarraitu hain potxolitoa izaten. Maite zaitugu.



IURRETA

Haizea

Irailaren 26an, 22 urte. Zorionak, ama, Jabi, Julen, Aratz, Amets, Maguie, Ore, Goku, Boo eta familia guztiaren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabilzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitzez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

Zorionak Oier (992.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

ESKELAK

URTEURRENA



Anton Uberuaga Zabala "Txatue"



Mallabian, 2024ko irailaren 28an
14. urteurrena

*"Izerdixe kopetan,
barrie arpeixen
mendixen nahiz kalien
maittie ziñen danien
beti etzekoen bihotzien."*



Betikoak
flexografia

BULEGORAKO
ZIGILUAK
FOTOLITOAK

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Elkartea
EK



GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak
eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

San Agustin Kultur Gunea **DURANGO**

URRIA
2024

arte eszenikoen
programazioa

ANTZERKIA

5 URRIA LARUNBATA
19:00

GAZTELERAZ
50 min
8 € (BAZKIDEAK 6 €)

75 PUÑALADAS
Txintxaun Antzerki
Kolektiboa



FAMILIENTZAKO
IKUSKIZUNA

6 URRIA IGANDEA
18:00

EUSKARAZ
50 min
4 € (BAZKIDEAK 3 €)

ALI BABA
ETA 40 LAPURRAK
Borobil Teatroa



BAKARRIZKETA

24 URRIA OSTEAGUNA
19:00

EUSKARAZ
50 min
8 € (BAZKIDEAK 6 €)

TU TUM PLATZ
Jon Plazaola



ANTZERKIA

27 URRIA IGANDEA
19:00

GAZTELERAZ
95 min
12 € (BAZKIDEAK 9 €)

HOY NO
ESTRENAMOS
L'Om Imprebís





LAU-HORTZA

MERTXE MUGIKA
BALANZATEGI

2075. urtea: Durangalde euskalduna?

Zenbatek egingo du euskaraz 2075. urtean? Kike Amonarrizek bota duen galdera horrek eman dit zutabe hau idazteko ideia. Erantzun garbirik ez dudan arren, jakin badakit ni neu ez naizela egongo, ez euskaraz, ezta beste ezelan ere berbarik egiteko! Eta nire ondorengoak? Bada, ez dakit zer erantzun. Izan ere, hemendik 50 urtera Durangaldean euskaraz bizi ahal izateko, oraindik hartu behar dira neurriak. Eta zalantza izpirik gabe, neurrietako bat premia sortzea izango da.

Sortzea diot, egun, zoritxarrez, ez dagoelako inongo beharrik euskara ikasteko. Irailean gaude, eta hilabete osoa daramat euskara ikasteko matrikulazio kanpainan. 2024-2025 ikasturterako, oso ekimen erakargarria abiatu du Eusko Jaurlaritzak. Hala, interesduna ia doan has daiteke ikasten. Bada, euskaraz eroso bizitzeko pausoa ematen hasiko diren batzuk joan dira izena ematera. Miresmen osoa beraientzat, ze txalotzekoa da datorren astetik aurrera egingo duten ahalegina euskara beren egunerokoan txertatzeko. Nonbait ikusi dute euskara ikasteko beharra, eta gure lana izango da bide horretan laguntzea. Dena dela, ikasleek ez ezik, euskaraz dakigunok ere badugu zelan eragin 50 urte barru euskara bizirik irauteko: erabili, erabili eta erabili!

AKUILUA

"Mendiaz gozaraztea, horixe da nire helburua"

GARTZEN ELEJABARRIETA URTIAGA MENDI GIDARIA

Gartzen Elejabarrieta (Abadiño, 1996) Tena bailaran (Aragoiko Pirinioetan) bizi da, eta lau urtetik hona mendi gidaria da. Eskalada eta eski irakaslea ere bada

Aitziber Basauri ABADIÑO

Udako denboraldia amaituta, Gartzen Elejabarrietak Mallorcan (Balelarrak) itsasoaz gozatzeko tarte hartuko du oporretan. Pirinioetako mendi eta arroilak eski estazioko pistengaitik aldatuko ditu neguan, *pister* lanei ekiteko —pistak zaintzen, segurtasuna bermatzen eta erreskateak egiten, behar izanez gero—.

Noiz erabaki zenuen mendi gidaria izatea? Nondik datorkizu zaletasuna?

Tena bailarara (Aragoiko Pirinioak) bizitzera etorri nintzeanean, zenbait jardueratan trebatzeko aukera ikusi nuen. Arroila-jaitsierak egiteko ikastaro batez hasi nintzen, eta gauza batek bestera eramanez ninduen. Beti izan dut gustuko mendia, eta inguru honetan bizi eta lan egiteko aukera ona ikusi nuen. Turismotik bizi gara hemen. Txikitatik joan naiz mendira, eta asko eskiatu dut. Mendian ibiltzeko, edurra gertuago edukitzeko... etorri nintzen, neurri batean.

Zer da mendi gidari izatek gehien erakartzen zaituena?

Jendeagaz hartu-eman izatea, eta mendian egoteko aukera,



jakina! Inguruko arroiletan ibiltzen gara beti, baina taldeak desberdinak izaten dira. Lan polita da.

Zer gura izaten dute bezeroek?

Uda sasoiaren arroiletan ibiltzen gara, batez ere. Ezagutza han-

dirik izan barik ere, ia edonork egin dezakeen jardura da. Mendi zeharkaldiren bat egitea edo tontorren bat igotzea ere eskatzen dute. Biescas inguruan eta Tenan bertan ibiltzen gara gehien. Inoiz Frantziako Pirinioetara joan

izan gara, hango arroila batzuetara. Denboraldiz kanpora, udaberrian eta udazkenean, eskalada ikastaroak ematen ditut.

Zer behar da mendi gidaria izateko? Jendeagaz disfrutatzea eta mendiaz gozaten jakitea. Norberak gozatu ezean, gatz da gozamen hori transmititzea. Ditugun eza-gupenak baliatuz gure pasioa transmititzea da gure lana, mendiaz gozaraztea. Horixe da nire helburua. Modu asko dago horretarako: arroilak jaisten, hormak eskalatzen, oinez, ari-ri-ri...

Zer da ezinbestean kontuan hartu behar dena?

Talde batean, ausartagoak edo beldurriagoak izan daitezke, eta bakoitzaren gogoia eta premiak ikusten jakin behar da, eta hori kontuan hartuta taldea ondo gidatzea lortu, denek goza dezaaten jardueraz.

Izan duzun esperientziarik onena? Eta txarrena?

Dela adinagaitik dela egoera fisikoagaitik, euren burua gai ikusten ez duten horiek helburuak lortzen ikustea da onena, eta gozatu egin dutela ikustea. Ez dut esperientzia txarrik izan.

Zer da zuretzat mendia?

Urteetan aterpetxe izan dut, momentu on eta txarretan. Beti aisiaren zati handi bat izan da niretzat, eta orain ogibide dut. Nire bizitzaren zati handia hartzen du.

Mendiaz gozatzeko lekuri onena?

Hemen hainbat mendi dugu, edurra dugu... baina Abadiñon ere asko gozaten dut. Asko maite ditut hango mendiak. Biak uztartzean dago gakoia.

Mendi bat?

Untzillatx. Asko gozatu dut han, lagunekin zein bakarrik.

